

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

BALIABIDE FISIKOAK

Gure ideia aurrera eraman dugu, Durangon dagoen baju bat aurkitu dugulako. Alokaturako dugun lokala gure lagun batena da, beraz, ideia ezin hobea iruditu zaigu. Egia esan, alokatuko dugu, baina jarri dugun link-ean saltzen dela agertzen da. Gure lagunarekin hitz egin ostean, alokatuko digula esan digu.

LINK-a → <https://www.idealista.com/inmueble/90465665/>

Durangon, Kalebarria kalean kokatuta dago. 60 m² ditu.

Alokaturakoa, behe solairu bat da, eta utzik aurkituko dugunez, aldaketak izango ditu. Adibidez, altzariz jantziko dugu.

Sartzerakoan, sarrera txiki bat egingo dugu eta bertan hainbat aulki jarriko ditugu. Bertara familiak etortzen direnean itzaroteko. Bi gela handi egingo ditugu eta sarreraren ondoan egongo dira, bionboekin bananduko ditugu gelak. Baita ere, komun bat izango dugu, pertsona guztiei egokitua.

Jarraian gela txiki bat dago non gure bulegoa egongo da. Bertan mahai handi bat jarriko dugu aulki batzuekin bertan gu batzartu ahal izateko.

BALIABIDE INTELEKTUALAK

Kooperatiba txiki bat izango da, eta hau sortuko dugunok Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa daukagu. Eta baita ere, monitoretza titulua izango dugu.

Honetaz gain, metodologia ezberdinak kontuan izango ditugu, Montessori, Pikler... eta bertara hitzaldi txikiak ematera gonbidatuko ditugu familiak metodologia desberdinak ikasi dezaten.

GIZA BALIABIDEAK

Talde honetako kideak gaitasun ezberdinak ditugu, hona hemen gure gaitasun batzuk:

GAITASUN PERTSONALAK: Ikasteko gaitasuna, antolatzeko gaitasuna, egoera berrietara egokitzeko gaitasuna, taldean lan egiteko gaitasuna, errespetuz jokatzeko gaitasuna...

GAITASUN PROFESIONALAK: Musika, Euskal Dantzak, ipuin kontaketa, eskulanak, lehen sorospenak.

HIZKUNTZAK: Euskara, ingelesa eta gaztelania.

INFORMATIKA: Microsoft Office, musika editoreak, Filmora...

GAITASUN SOZIALAK: Lasaia, hitz jario argikoa, gertutasuna, enpatikoa, alaia, aktiboa, ziurra, bere buruarengana konfiantza duena, gainerakoengan sinesten duena, ikasteko hobetzeko gogoia duena.

Giza baliabideetan aipatutako gaitasun guztiak elkartean gauden pertsonen artean daude banatuta, batzuk beste batzuk baino gaitasun gehiago dauzkagu eta gainera, gure artean lagundu egingo gara bertan gauden guztiak gaitasun guztiak lortzeko.